

Funtsezko jarduerak

Gure enpresa funtsezko jarduera batzuk izango ditu. Baina gure enpresa bitan banatzen denez, funtsezko jarduera batzuk ditugu gure egoitzan eta beste batzuk gure aiton-amonen laguntzaren zerbitzuan.

EGOITZA:

- Animalien osasuna eta segurtasuna
- Animaliak eroso egotea
- Bezeroekin komunikazio ona izatea
- Garbitasuna mantetzea
- Giro egokia izatea: Kontrolatu zaratak, ikusmen-estimuluak edo antsietatea sor dezaketen egoerak. Lasaitasuna lehenesten duen inguruneari eustea
- Larrialdietarako prest egotea: Ebakuazioetarako, suteetarako edo bestelako egoera kritikoetarako protokoloak izatea

Hasteko, egoitzarako funtsezko jarduera nagusia gure animalien erosotasuna lortzea da. Horregatik gure animalien osasuna eta segurtasuna bermatzea bilatzen dugu. Hau izango da gure helburu nagusia, gure enpresaren bitartez bezeroen maskotei kalitatezko zerbitzua eskaintzea bilatzen dugulako haien fideltasuna lortzeko. Horretarako al baitari bat izango dugu hilabetero etortzen dena gure maskotak laguntzeko eta gure bezeroen kezkak erantzuteko. Gainera, egun guztian zehar egongo gara maskotetaz arduratuta haien esperientzia gure egoitzan ezin hobe izateko.

Aurrera eramango dugun beste jarduera bat bezeroen komunikazio ona mantentzea izango da. Oso garantzitsua da harreman ona izatea gure bezeroekin haiek izango direlako gure zerbitzua kontratatuko dituztenak. Horetarako deiak egingo ditugu periodikoki haiekin; haien iritzia jakiteko eta hobekuntza arloak kontuan izateko. Ondorioz, Haiekin kontaktuan egongo gara eta hobetu dezakegu ere.

Beste funtsezko jarduera bat gure egoitzaren garbitasuna mantentzea da. Horrela, gure bezeroek gure enpresaren seriotasuna ikusi dezakete eta haien maskotak gaixotasunik gabeko leku garbi batean egongo dira. Jarduera hau posible izateko, garbitzaileak etorriko dira bi egunetan behin maskotak eragiten duten hondakinengatik.

ZERBITZUA:

- Jende nagusiaren egoera hobetzea haien bakartasunarekin bukatuz
- Eta egoitzetan bizi diren pertsonen egoera hobetzea
- Egoitza eta udalarekin harrema onak izatea

Beste helburu eta jarduera batzuk funtsezkoak dira gure zerbitzua aurrera eramateko.

Hasteko , gure beste helburuetako bat adineko pertsonak dira, haien zoriona eta erosotasuna bereziki, eta, kasu honetan, gure lehentasuna da adineko pertsonak bizitza zoriontsuagoa bizi ahal izatea, egunaren zatirik handiena animalia batek lagundurik. Hau egoitzetako adinekoei ere aplikatzen zaie, nahiz eta haiek lagun gehiago izan beren zerbitzura dauden pertsonak dituztelako eta egunero haiekin bizi diren pertsonak dituztelako, maskotek zoriontasun-plus bat ematen diote guztien bizitzari.

Nagusien egoitzekin eta animaliak etxean dituzten familiekin harremanetan ona eta konstantea izateko, 2 dei periodiko egingo ditugu astero eskainitako zerbitzua nola doan jakinarazteko. Dei hauek hobekuntzak egiteko dira, eta laguntza gehiago behar izatekotan nahi dutenean gurekin kontaktatu dezakete email, telefono edo modu presentzialean egoitzara etortzen. Hala ere, larrialdi baten aurrean nagusien egoitzara edo etxera joan gaitezke arazoa ahalik eta lasterren eta ahalik eta hoberen konpontzearen.

Jarraipen hori egiteko eta guk ezagutzak jakiteko, egiteko, inkesta bat bidaliko dugu hilabete bakoitzaren amaieran, bezeroek gure zerbitzuei buruzko iritzia eman dezaten. Horrek enpresa gisa eskaintzen dugunaren kalitatea hobetzen lagunduko digu. Inkesta honek, gurekin lan egiten duten egoitzetara ere bidaliko da, langileek eta egoitzan bizi diren pertsonak emandako zerbitzuarekin pozik daudela adieraz dezaten. Hori etxean bakarrik bizi diren pertsonak ere aplikatuko zaie.

Gure bezeroek eta egoitzek betetzen dituzten inkesten bidez lortutako erantzunak udalari bidaliko dizkiogu, gure enpresaren emaitza onak edo txarrak eta bezeroek zerbitzuarekiko dituzten iritzi, erreklamazio edo hobekuntza desberdinak jakin ditzaten.

Azkenik, udalarekin harremanetan jarraitzeko, urtean 2 bilera hitzartu ditugu gure enpresan eta zerbitzuetan egin daitezkeen hobekuntzei eta proiektuei buruz eztabaidatzeko. Horrela, Barakaldoko Udala gure proiektuan gehiago sartzeko modu bat izango da.